


"Dinosauroidea, gure aurreko izaki adimentsua ote?"

Karlox Barrentsoro



Steven Spielberg zine-zuzendari ospetsuak Michael Crichtonen liburuan oinarritutako "Jurassic Park" izeneko pelikula plazaratu duenez gero, guztion irrika berpiztu da dinosauruekiko. Fikziozko pelikula izan arren gaurkotasun handiko gaia kaleratzen du; ADN eta genetika inguruko gaiekin zerikusia baitu.

Paleontologiaren ikuspegia aspalditxo landu genuen "Elhuyar Zientzia eta Teknika" aldizkarian, 1988ko urrian Alfontso M. Lizarduikoa lankideak idatzi zuen "Iguanodonak, Euskal Herriko lehen ornodunak?" izeneko artikuluan hain zuzen ere.

Oraingoan Karloxo Barrentsororen artikulua ausarta argitaratzeko aukera dugu.

Dinosauruez hitz egiten dugunean, izaki erraldaien eta ikaragarrien irudia datorkigu burura, urte luzetan horrelako ustea izan dugulako. Baina gaur egun jakin badakigu neurri, pisu eta era askotakoak izan zirela. 140.000.000 urtean zehar bizi izan ziren, "Triasiko" deituriko garaitik "Kretaziko" deitutakoaren bukaera arte. Eta misteriozki desagertu ziren orain dela 60.000.000 urte. Desagertzeko izan ziren arrazoiei buruz asko idatzi eta mintzatu da, eta teoria franko eman da aditzera. Famatuenetakoak, lurrera garai hartan erori omen zen asteroide erraldoiarena dugu. Nolanahi ere, dinosauruak erabat desagertu ziren.

Animalien itxura,
kasualitate hutsa
ote?


Dinosauruen arlo zabala aztertuz gero, itxura eta familia ezberdinetako mota



Hona hemen belabelta (hegaztia) eta archaeopteryxa (sau-

askorekin egingo dugu topo. Batzuk belarjaleak ziren, besteak haragi-jaleak; batzuk orduko oihan lizun trinkoetan bizi ziren, itsasoan edo itsasertzean besteak, ... Batzuk txikiak ziren (metro bat luze baino gehiago ez zen compsognathus izeneko lekuko). Besteak arras erraldoiak: brakiosaurioak, tiranosaurioak, diplodokoak, ... Batzuk lehorrekoak ziren, arrunt. Besteak berriz, igerilariak (iktiosaurioak esate baterako) eta egon bazeuden hegan egiten zutenak ere, hala nola pterodaktiloa, pteranodonta, ... eta bitxiena archaeopteryx izeneko dinosaurusu lumaduna. Azken honetan oinarriturik, badira hegaztiak dinosaurusuengandik datozela defendatzen duten zientzialariak.

Aipaturiko zenbait dinosaurusuren itxura aztertuz, gaur egun beren ingurunean bizi eta defendatzen diren bestelako animaliekin zer-nolako antza daukaten ikus dezakegu. Eta hor dago kakoa. Inguruak ez al du bere baitan garatzen diren espezieen itxurekin zerikusirik? Kasualitate hutsa ote da animaliek duten itxura? Archaeopteryxaren eta gaur egungo zenbait hegaztiren itxura aztertzen baditugu, oso antzekoak direla ikusiko dugu. Kasualitatea ote? Gauza bera ger-




Goian Asiako errinozeroa eta behean triceratopsa. Lehenengoa ugaztuna eta bigarrena saurioa izan arren, antz handia dute formetan.

tatuko zaigu trizerotops edota bestelako dinosaurusu adardunen itxura oraingo errinozeroarekin konparatuz gero. Kasualitatea? Eta zer esanik ez, iktiosaurioaren itxura gaur egungo izurdearen (ugaztuna) edo arraina den marrazoarekin konparaturik. Hori

ere kasualitatea ote? Nire uste apalez, ez dira kasualitate hutsak; inguruneak zuzenean eragin baitezake bere baitan garatzen diren espezieen itxuran. (Ikus konparazio-marrazkiak).

Eta gizakiaren itxuraz zer?

Eta gizakiaren itxurari dagokionez, ezin al dugu antzekorik esan? Eta zergatik ez? Inguruneak besteren itxuren osakeran eragina eduki badezake, zergatik ez gurean? Otawako "Museum of Nature"n lan egiten duen 53 urteko Dale Russel paleontologo kanadarrak oso teoria ausarta plazaratu du honi buruz. 1968. urtean, Kanadako Alberta izeneko lurraldeko hegoaldean, dinosaurusu txiki baten arrastoak aurkitu zituen. Ikertu eta datatuz gero, Stenoychosaurus izena eman zitzaion eta 75.000.000 urteko antzinatasuna leporatu zioten. Bere eskeletoaren egitura eta espezieen eboluzioaren pausuetan oinarriturik, gaur egungo gizakiaren antzeko izaki bat eraiki zuen: dinosauoidea. Dale Russellen ustez, prozesu biologikoen aurrean ba omen daude irtenbide morfologikoak. Giza itxura ez da kasualitatea; arazo biofisiko zehatz bati ematen zaion irtenbidea baizik. Giza itxura oso egokitua eta landua



Goian izurdea (ugaztuna), erdian marrazoa (arraina) eta behean iktiosaurioa (saurioa). Hirurak ere oso antz handikoak.

dagoenez, hautespen naturalak bilatzen eta lortzen duen helburu naturaltzat har genezake.

Stenoychosaurusa bipedo edo hankabikoa zen; oso esku malgua eta erpuru toleskorra zituena. Dinosauru izateko oso garun handikoa zen eta ikusmen binokularrekoa. Eta agerikoa da horrelako ezaugarriak eta antropologiak gizateriaren arbaso zaharrei buruz ematen dituenak alderatuta parekotasun handia sortzen dela. Aipatutako paleontologoaren ustez, ingurua eta genetika, gaur egungo gizakiaren antzeko espezie dinosauroide bat sortarazteko gauza dira. Eta stenoychosaurusaren garunaren neurri handia ikusirik, zergatik ezin da pentsatu agian gure antzera adimentsua izan zitekeela? Hitz bitan esanda, gure antzeko antroposaurio edo gizasaurio adimentsua izan zitekeen. Eta zergatik ez? (ikus Russellek egindako irudia).

Eta Ica-ko harrietako izakiak?

D enok ezagutzen ditugu gure historiaurrekoak diren eta zientziak defendatzen duena-

Dinosauroidea eta A. Russelen ustez bere balizko arbaso izan zitekeen stenoychosaurusa.



rekin bat ez datozen arrastoak. Bagdadeko pila, balaz zulatutako

buruhezur prehistorikoa, Nazca-ko geoglifoak, Atacama basamortukoak, Saharakoak, antzinako airetiko mapak, ...; gure zientziak eskaintzen digun bide logikoan ondo sartzen ez direnenak. Horietako bat dugu Ica-ko harrietakoa. Dagoeneko ehundaka azaldu diren harri horietan, gizaki bitxi batez mintzo dira. Gaur egungo zientzilariek ez dituzte ontzat hartzen jakina! Baina nondik datozkigu? eta noizkoak dira?

Harri horietan mezu berezi asko ematen zaizkigu: ebakuntzak, eragiketak, ... baita gizaki bitxi horren bizimoduari buruzkoak ere. Askotan azaltzen dira dinosauru ezberdinen ondoan, eta horietako hegalaria batzuen gainean hegan eginez ere bai. Ica-ko gizakiaren itxurari erreparatzen badiogu, berak ere erdisaurioa dirudiela esan genezake. Eta ez bere itxuragatik bakarrik; buruan, beso eta hanketan ikus dakizkikeen eske-men antzagatik ere bai baizik. Eta Ica-ko harriak gizaki dinosauroideak eginak balira? Eta tximinotik gartu den gure gizateria baino lehen, dinosauruetatik sortutako beste gizateria egon izan balitz? Denok dakigunez historia eta historiaurrea, gizakiaren neurriera egindako denborazko jantziak dira. Eta lehenago bestelako espezie adimentsuen historia egon izan balitz? **E**

